

konpromisoa osasunarekin eta iraunkortasunarekin

**EROSKI-K BERE HORNITZAILEEN IRAUNKORTASUNA
BULTZATUKO DU EAE-N**

- Helburua da nekazaritzako elikagaien ekoizleei lagun egitea ingurumenaren, gizartearen eta gobernu korporatiboaren aldeko jarduna hobetzeko orduan
- Proiektua, gaur egun diagnostikoaren lehen fasean dagoena, tokian-tokian eskaini zaie nekazaritzako elikagaien 200 bat ekoizle txikiri
- EROSKI k oso dibertsifikatuta dagoen nekazaritza-ehuna bultzatzen du, zeina giltzarrizkoa baita sektorearen iraunkortasunerako

Elorrio, 2022ko martxoaren 24a.- [EROSKI](#)k beste tresna bat jarri du martxan, Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien ekoizle direnen zerbitzuko. Tresna horiekin, ingurumenaren, gizartearen eta gobernu korporatiboaren alde egiten dutena ebaluatzeko modua izango dute enpresek, ESG irizpideak aintzat hartuta. Ingelesez daude siglak, eta esan nahi dute Environmental, Social eta Governance; erreferentzia egiten diote konpainia bat iraunkorra izateko kontuan izan behar diren faktoreei, hau da, gizartea, ingurumena eta gobernu ona.

"EROSKI k apustu egiten du tokiko ekoizleekin lankidetzan estuan jarduteari, eta gonbidatzen ditugu programa honetan parte hartzera, elkarrekin egin dezagun iraunkortasunerantz, zeina aldi berean baita gaur egungo kontsumitzailearen lehendabiziko kezketako bat. EAEn nekazaritzako elikagaien sektorea bultzatzen eta babesten duen pieza giltzarria gara, eta tokiko ekoizleak eta iraunkortasuna sustatzea ardatz estrategikoak dira EROSKIrentzat", azaldu du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

Proiektu honen bitartez, abiaburuan, sei alderdi ebaluatuko zaizkie nekazaritzako elikagaien 200 bat ekoizleri, eta alderdi horiek nola hobetu ditzaketen zedarrituko da. Helburu nagusiak hauek dira: EROSKIren ingurunean diharduten tokiko ekoizleen enpresak gehiago ezagutzea eta konpromisoa areagotzea; prestakuntza eta babesa ematea etengabe hobetzen joan daitezen, produktuen kalitatea handitzen eta ingurumen eta gizarte arloetan portaera hobetzen laguntzea eta gidatzea, eta hornidura katean gardentasun handiagoa lortzea.

Tresna berria orain dela gutxi aurkeztu zioten ehun bat euskal ekoizleri. Ekitaldian izan zen Ihobe ekonomia zirkularreko zuzendaria ere, Jose Maria Fernandez. Hogei bat euskal ekoizletan ere probatua dago programa. *"Elkarrekin lanean eman ditugun urte hauetan jaso dugun laguntza eskertu nahi diogu EROSKIri, batik bat tresna honekin eman digun babesa eta jarraipena, hazteko bidea eman baitigu"*, esan du Gomiztegi kooperatibako arduradunak, Batis Otaegik.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Gaur egun aurreneko fasean dago proiektua, diagnostikoan, eta helburua da ekoizleen egoera zertan den identifikatzea kalitatearen eta iraunkortasunaren arloetan, gero etengabeko hobekuntzan laguntzeko. Alde horretatik, hornitzaileei inprimaki bat bidaliko zaie online, ingurumenaren, gizartearen eta gobernu onaren alderdiei buruzkoa. Informazioa jaso ondoren, EROSKI bigarren fasea jarriko du martxan, diagnostikoaren txostena. Helburua da ekoizleei jakinaraztea zertan diren eta zer daukaten hobetzeko.

Ondoren, hobekuntza eremuak detektatuta, EROSKI hirugarren fasea gauzatuko du, prestakuntzarena, nola eta webinarren, buletinaren eta jardunaldien bitartez, ekoizleei beren langileen gaitasuna errazteko eta produktuetan eta prozesuetan hobekuntzak garatzeko. Laguntza programa hori jarraikorra izango da, diagnostikoa eguneratua egoteko eta denboran aldatzen diren interesen arabera edukia emateko.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

EROSKIren politika komertzialak ahal den gehiena indartzen ditu tokiko ekonomiak, ingurunean aberastasuna sortzeko eta nekazaritzako elikagaiak, gizartea eta ekonomia garatzen laguntzeko. Eredu horrek oso dibertsifikatuta dagoen tokiko nekazaritza-ehuna bultzatzen du, zeina giltzarrizkoa baita sektorearen iraunkortasunerako.

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien banaketan. EROSKI 8.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 1.650 hornitzaile ingururekin dihardu, haiei 730 milioi eurotik gorako erosketa eginez urtero.

412 saltoki ditu guztira autonomia erkidegoan, hala nola supermerkatu eta hipermerkatu propioak nahiz frankiziatuak, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta [Forum Sport](#) dendak eta [Dooers](#) dendak, bai eta [on line supermerkatua](#) ere. EROSKI Cluben fidelizazio programak milioi bat bezero-bazkide inguru ditu autonomia erkidego honetan.

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)